



Eguberri jaien errepasso zabala irudien bidez

Olentzero, Mari Domingi, Porrotx eta ekialde Urruneko Errege Magoen bisitak izan dira Lasarte-Orian Gabonetan. Gainera, herriko haur eta gaztetxoek opari mordoak jaso dute hauekin jolasteko. Halabaina, hamabost egun hauetan haur zein helduen gozamerako hainbat ekintza burutu dira herrian, ur-festa, gabonetako haur parkea... / 4-5. orrialdeak

Langabezian dauden zazpi herritar kontratatuko ditu Udalak

Lanbiderekin sinatutako akordioari esker, honek diruz lagunduko du

Udalak Lanbideren bitartez zazpi lanpostu beteko ditu datozen hilabeteotan. Zehazki hauek dira: 1. mailako arotza ofiziala, 1. mailako elektrikari ofiziala, 1. mailako delinea-tzailea, igeltsero laguntzailea, iturgin laguntzailea, herri garapenerako dinamizatzailea eta parte hartze teknikaria.

Udalak jakin arazi duenez, langabezian dauden herritar-rrak izango dira ekimen honen onuradunak.

Era berean, lanpostuen kontratuek sei hilabeteko iraupena eta lanaldi osoak izango direla ere adierazi dute.

Baldintzak

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko batetik Lanbiden izena emanda egon



Psrtu hauetako batean interesatuak daudenek Lanbiden izena eman behar dute.

beharko dute eskatzaileek eta bestetik deialdia honi dagozkion baldintzak bete behar dituzte.

Hau da, langabezian dauden eta prestaziorik jasotzen

ez duten herritarrek izan behar dira eta eskaintako lanpostuetara egoki moldatu behar dira. Gainera, lehentasuna emango zaie Lasarte-Orian erroldatutako pertsoneri.

Prozedura

Lan eskaintza hauetan izena emateko, www.lanbide.net web gunean egin daiteke baita bulegoetan ere.

Abenduaren 29tik urtarrilaren 5era bitartean, ofizial eta laguntzaile lanpostuen eskatzaileen zerrenda osatu da.

Delineatzaile, herri garapenerako dinamizatzaile eta parte hartze teknikariaren postuetan interesa dutenek, berriz, gaurtik urtarrilaren 16ra dute izena emateko.

Udalak azaldu duenez, lan eskaintza hauen hasierako kudeaketa Iñigo de Loiola kalean dagoen Lanbide bulegoak egingo du eta azken hautaketa berriz, udaleko gizarte zerbitzuek burutuko dute. •

Tapiarekin "Eta tira eta tunba!"

Kontzertu borobila eskaini zuen Joseba Tapiak trikitalari lasarteoriatarrek ostiral iluntzean Manuel Lekuona kultur-etxean 2010. urtean kaleratu zuen "Eta tira eta tunba" azken diskoa aurkezteko. Presoen Lagunak Taldeak azken bi asteotan antolatutako egitarauko ekitaldi guztien artean azkena izan zen ostiralekoa eta jende askok erantzun zion deiarri. Kontzertuan, trikitaliaz gain, beste hainbat instrumentu entzuteko aukera izan zen. Bestalde, herritarrek lau autobus bete zituzten Bilbora, presoen aldeko manifestaziora, joateko. / 2. orrialdea



Kontzertu borobila eskaini zuen Joseba Tapiak, eta jendearen erantzuna ere halakoxea izan zen.

POLITIKA /3

Hiribus zerbitzua behin-behinekoz eten du Udalak

KIROLA /6

Buruntzaldea Igeriketa taldeak ederki amaitu zuen 2011. urtea

KIROLA /6

Begiristain anaiak larruzko pilotarekin Gipuzkoako paleta txapeldunak dira

AZKEN MUGA TABERNA

Goizeko 07:00etan irekitzen dugu!

Gosarietan prezio bereziak!

Beko bidea 2 behe • Lasarte-Oria

Berriz irekita nagusi berriekin





Herriko preso politikoen idatziak eta olerkiak izan ziren nagusi Manuel Lekuona kultur-etxean abenduaren 30ean egin zen emanaldian. Baina hitzez gain, musika, dantza eta antzerkia ere izan ziren herritarren gozamenarako.



Presoen ahotsa Lasarte-Orian

- Bi asteko egitarau zabala burutu du Presoen Lagunak taldeak
- Herriko presoen olerkiak eman zituzten abenduaren 30ean

Bi aste hauetan, Presoen Lagunen Taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu Euskal Preso politikoen egoera gure herrira gerturatzeko eta asko izan dira hauetan parte hartu duten herritarrak.

Presoek egindako eskularen erakusketa, ipuin kontariak, DJ saioa eta ikastaroa, torturari buruzko dokumentalaren aurkezpena, olerki irakurketa... abenduaren 26tik urtarrilaren 5era arte, Geltoki

kaleko lokalean denetarik izan da.

Honetaz gain, Eguberri bezperan presoen aldeko brindisa egin zen eta urte zahar egunean Lasarte-Orian ehunka herritarrek euskal presoen eskubideen alde egin zen manifestazioan parte hartu zuten.

Ekitaldi hunkigarria

Baina ekintzen artean hunkigarriena abenduaren 30ean

Manuel Lekuona kultur-etxean izan zen olerki irakurketa izan zen. Izan ere, Lasarte-Oriako presoen lanak oholtzaratu zituzten herriko pertsona ezberdinek.

Poesia irakurketaz gain, musika, dantza eta antzerkia entzun eta ikusteko aukera izan zen saioan. Esate baterako, Aitzol Iriondo presoak idatzitako "Bazatoz, umore?" antzerkiaren funtzioa izan zen ikusgai. •



Ekintza ugari burutu dira, hala nola, poesia irakurketa, dokumentalak edo bertsolariak.

Herrian izan den aspaldiko manifestazio jendetsuenak Lasarte-Oriako kaleak hartu zituen abenduaren 31n.

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Hiribus zerbitzua eten egin da

Behin-behineko etetea erabaki du Udalak, zerbitzua arautu eta enpresa aukeratzeko eskaintza publikoa egin bitartean

Abenduaren 30a, Hiri-bus zerbitzuaren azken eguna izan zen. Herriko etxeetara honen berri ematen zuen bandoa banatu zen. Baina aurretik, abenduaren 20ean, Bildu, EAJ eta LOHP alderdiko bozeramaileek etetearen berri eman zieten komunikabideei.

Erabaki hau behin-behinekoa dela eta zerbitzua sortu eta eskaintza publikoa egin arte zerbitzurik egongo ez dela adierazi zuten agerraldi horretan.

"Zerbitzua sortu behar da eta prozesu administratibo bat jarraitu behar du, urrats desberdinak emanaz," azaldu zuten Pablo Barrio alkateak.

Izan ere, "proba pilotoa amaitu zenetik, hiribusaren zerbitzuak arautu gabe jarraitu du martxan eta hau sortzeko udal-erabakirik ere ez da egon," azpimarratu zuten.

Ana Prieto Zerbitzu Publikoetako batzorde buruak azaldu zuenez, "gure gogoia zerbitzua mantentzea da. Baina kalitatezko zerbitzua izatea nahi dugu".

Horregatik hainbat enpresek in harremanetan jarri eta zerbitzua lizitazio publikora ateratzeko erabakia hartu



Hiribusaren zerbitzua arautu eta sortu arte, ez da berriro autobusa martxan izango.

duzela jakinarazi zuten. Era honetara, zerbitzuaren gastua ere murriztuko luketela aipatu zuten.

Hau guztiaz gain, Prietok adierazi duenez, orain arte Lurraldebus txartela erabili ahal izan dute herritarrek, "baina zerbitzua sortua ez zegoenez, Foru Aldundiarekin ez zegoen hitzarmenik sinatuta eta Udalak ordaindu behar izan du ehuneko hori ere".

Arazoak eta bilerak

Prozesua gauzatzen den bitartean, zerbitzu hori ez goteak erabiltzaileei arazoak sortuko

dizkiela eta, barkamena eskatu zuten Lasarte-Oriako udal ordezkariak.

Baina zerbitzua modu egokian, egonkorrean eta legalean martxan jartzeko pausak eman behar direla adierazi zuten hiru alderdiek. Bide batez, prozesua lehenbailehen egitea espero dutela azpimarratu zuten.

Gainera, auzo elkarrekin bilera izan dutela eta bizilagunak zerbitzua etetearekin ados ez daudela aipatu dute. Hala ere, zerbitzua hobetzeko beraien iritzia kontuan izango dutela azpimarratu dute. •

IKASTAROA

Arrisku handiko janariekin lan egiteko

Elkolab enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Osasun Sailarekin elkarlanean, ikastaro bat emango du, arrisku handiko janariak erabiltzen ikasteko.

Janari maneiatzaile ikastaro berri hau ostalaritza arloari zuzenduta dago, eta Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko gai eta edukiak jorratuko ditu.

Ikastaroa, asteazkenean, urtarrilaren 18an emango da arratsaldeko 16:00etatik 20:00tara bitartean Osasun zentroko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan. Prezioa 45 eurokoa da pertsonako, baina beherapena izango dute soldatapeko langile eta langabetuek (hauek 35 euro ordainduko dituzte).

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu KIUB(OMIC) Kontsumitzaileen Bulegora, 943 361 605 telefono zenbakira edo Elkolab kooperatibara, 943 533 303 zenbakira. •

ZINEA

Helduentzako zinea urtarriletik aurrera

Lasarte-Oriako Kultura sailak Manuel Lekuona kultur-etxeko zinema eskaintza zabaldu du, hamabost egunero helduentzako zinema izango da igande arratsaldeetan, 19:30ean.

Sarrera 5,50 eurotako da eta ostegunetan Okendo Zinema taldearen zine forumean eskaintzen diren pelikulak ikusteko aukera izango da. Saileko arduradunak, Boris Nogalesk azaldu digunez, "Zine Forum saioa bi ostegunetan behin da, gaueko 21:30etan, eta herritar asko ezin dira saiora hurbildu. Okendo Zinema Taldeak aspalditik eginko eskaerari kasu eginez, saioa igandeetan errepikatzea erabaki da".

Aipatu digunez bi hilabete hauetan proba egingo da, "herritarren harrera ikusi beharko da. Zerbitzua mantentzeko asmoa dugu, baina bi hilabete hauetan pertsona gutxi batzuk gerturazten badira bertan behera geratuko da helduentzako zinea". Gainera, Gazte Txartel Munitzipala daukatenei %10eko deskontua egingo zaiela gogoratu du.

Gauzak honela, lehenengo saioa igande honetan izango da eta "Medianoche en Paris" filma ikusi ahal dute Manuel Lekuonara hurbiltzen direnek. •

GAZTERIA

Gazteentzako ikastaro berriak

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Kultura sailek, urte honetako lehenengo hiru hilabeterako hainbat ikastaro berri eskainiko dizkie hamalau urtetik aurrerako gazteei. Hauek film laburrak egiteko ikastaroa, Egipto: aintzinako inperioa, jendeaurrean hitz egiten ikasteko tailerra eta sormen tekniken ikastaroak dira.

Hautetaz gain, ohikoak diren egur taila, bisuteria, batuka, josketa eta konponketak, latinoamerikar dantzak, sabel dantza edo literatur tailerren parte hartzeko aukera ere dute herriko gazteek.

Egur tailan eta literatura tailerren izan ezik, ikastaro bakoitzeko 25,30 euro ordaindu beharko dituzte Lasarte-Oriako errol-datutako gazteek eta erroldatu gabek, aldiz, 44,60 euro. Egur tailako ikastaroko prezioei dagokienez, errol-datuek 49,20 eurotako izena ematea dute eta erroldatu gabek 92,60 eurotako. Literatura tailerra doakoa da.

Izena emateko azken eguna ostirala, urtarrilaren 13a izango da eta ikastaro guztietan ikasle kopurua mugatua da. Informazio gehiago nahi izanez gero, hurbildu Manuel Lekuona kultur-etxeko hirugarren solairuan dagoen gazteentzako informazio bulegora. •

POLITIKA

PSE-EEK Gobernuaren parte-hartze politikatu du

Lasarte-Oriako PSE-EEK Bilduk duen parte hartze politikatu du komunikabideetara bidali duen ohar batean.

Jesus Zaballos alderdi sozialistako bozeramailearen hitzetan, "Gobernu berriak, Bildu, EAJ eta LOHP, urte erdi darama udal-txeka kudeatzen. Nahiz eta hauteskundeetan parte-hartzea behin eta berriro aipatu, herritarrengan eragina duten erabakiak hartu dituzte lasarteoriarrei parte hartzeko aukerarik eman gabe. Horren adibide dira ordenantza fiskalak eta aurrekontua ere bide beretik doa".

Oharrean azpimarratzen denez, alderdi sozialistak ongi ikusten du erabaki politikoetan herritarren parte-hartzea sustatzen dituzten tresnak. "Baina legegaldi honetan sortu den parte-hartze batzordeak duen jardun eza salatu nahi dugu. Izan ere, zazpi hilabete hauetan ez da behin ere bildu, ezta honetan nola lan egingo den zehazteko ere," adierazi dute. •

Abaraska, euskaldunon arnas gune

TTAKUN K.E.

Ttakun Kultur elkarteak bere sorreratik euskalgintzaren erreferente izan bada ere, herriko beste erakundeen egoera zeharo aldatu da azkeneko urteetan. Erakunde ezberdinak dira egun arnas gune euskarentzako, eta jada gune horien arteko hodiak eraikita badaude ere, gehiago hurbiltzeak eta elkarren arteko ekimenak ekarriko duen gune zabalago bat izan nahi du Abaraska.

Lau urtez behin antolatzen den Euskararen Maratoienaren filosofia jarraituz, lasarteoriatarrak euskalduntzeko dugun gogoia isladatzen du eta guztian parte hartzea bideratuko duen egitasmo zabalago izan nahi du, eguneko maratoia, benetako, elikatzeko lagunduko duen gunea.

Euskaraz funtzionatzen dugun elkarteek izango gara arnas guneari airea eman eta Abaraska osatuko dugunok eta maratoian bezala parte hartze ezberdinak izango



Inauteri jaietan edo Maratoian ematen den elkarlana da Abaraskaren sorrera puntua.

dira. Lau urterik behin, Olinpiadak bezala, Maratoia jomuga izango duten egitasmoak gauzatuko ditugu. Egun badira jada egitasmo ezberdinak bide honetan; Xumela abesbatza eta azkeneko urteetan Inauteri jaia, eta zergatik ez bide horretatik jarraituz Olentzero bezalako festa herrikoia gauzatzea...

Bide berri hau eraikitzen, aurreko ikasturtean zehar egingandako hausnarketa batean gau-

zatzten hasi zen, herriko erakunde zein herritar ezberdinekin. Orain, Abaraskaren lehenengo pausak elkarrekin ematear gaudela, hausnarketa horren berri eman nahi dugu herritar, eta egitasmo honetan, bakoitzaren arnas gunea gehitu nahi duen oro gonbidatu nahi dugu, bide berrian elkargunea ahalik eta zabalena izan dadin. Elkar jartzea urtarrilaren 14an izango da Kultur Etxeko hitzaldi aretoan goizeko 10:30ean. •



Kalejira eta emanaldien herriar igan bildu ziren, Okendo haurren marrazkien atondua zegoen.



Landaberri ilastobako haur eta gurasoak edo Naximenduaren laginak, kaleak kaleak girotu zituzten.



Haur igan izan ziren Olenzerori bere eskutitza eman ziotenak. Aurrean gainera, Mari Domingi eta Xixokoren laguntza izan zuten.

Eguberriak amaitu dira

Olenzeroren ongi-etorria, ur-festa, gazteentzako ekintzak, sari banaketak... denetarik izan da

Eguberri bezperatik Errege egunera bitartean, hamabost egunecan denetarik izan da herrian. Abenduaren 24an, herriko talde desberdinek, Landaberri ilastobako haur eta gurasoek, Naximenduaren laginak taldeak, Ekiz EDTk, Zabaleta-ko auzoko kideak edo Alboka abesbatzak herriko kale zein inguruak girotu zituzten gabon abesbeteak.

Besaldea, Olenzerori ongi-etorria emateko kalejira eta musikaz betetako emanaldia izan ziren Okendo plazan. Kazkinaz gaitu, Mari Domingi, Xixuko eta Porroko ikusle-ko aukera ere izan zen.

Asteotan zehar, haurrentzako Eguberrietako parkea, ur-festa edo kale herizailleek antolatutako ekintzak egin zituzten, gazte txoak egun hauetan asper ez zitezten.



XIX. Jaiotza Lehiaketako sari banaketa egun zuten Danok Kide elkarrekin. Aurrean 34 jaiotza izan dira lehiatzen lau mahaiberridatan eta epailek ez dite lan erraza izan. 6 eta 9 urteko gazteokoen mailan sari nagusia Ane Balerdi eta Maren Urkizu-en inak lortu zuten. B mailan, berriz, Javier eta Pablo Hereroko anaiek eskuratu zuten saria nerabeen mailan. Oscar Gurrudo izan zen garailua eta 18 urte bano gehiago mailan. Aritz Diez izan zen irabazlea. Lehiaketan parte hartu zuten gurtzok izan zuten sarbideroan bit.



Eterki gozatu zuten herriko gazte eta haurrek, gertelokuan izan zen neguko ur-festari. Kaleko herizailleek, amolatuako gazte ekintzak ere izan ziren Okendo plazan, hala nola, papak egitea edo herri kirolak.

TXIXA VALLES



Gabonetako lehenengo astean, haur eta gazte ugari lur bildu ziren haur parkean.



Acobalgar egitean ere elintza ugari izan da. Jaiotzeko lagunak edo Egurek izan dira berran.



Errege Magoen Marrazdi lehiaketako sariak banatu ziren Errege egunaren bezperan. MEGABA elkarrekin antolatutako lehiaketako irabazleak izan ziren: A mailan, Jon Pralgo; B mailan, Marca Raballo eta Irene Ugidos; C mailan, Hainbat igan jaso zituzten, halan artean aurkeztutako marrazkien koadroak. Marra Raballoren marrazkia, gainera, Errege Magoen desfileko koadroetako erabilbi izan.



Elialde Urruneko Magoek harren boretza izan zuten, su artifiziala eta guzti. Nahiz eta erria egiti, haur igan bildu zen Okendo plazan.

Ederki amaitu zuten urtea igerilariek

Ordiziako Nazioarteko txapelketako finaletan izan ziren Buruntzaldea IKT-ko gazteak

Urte bukaeran Oiartzungo San Esteban saria, Hernaniko Saria edo Ordiziako nazioarteko txapelketan parte hartu dute Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteek. Hauetan guztietan lan bikaina egin dute eta domina zein marka kopurua handitzen ari da etengabe taldea.

Abenduko azken asteetan lan eta lan ibili dira Buruntzaldea IKT-ko igerilariak. Hainbat lehiaketetan izan dira eta aipagarriena abenduaren 29an izan zen Ordiziako Gabonetako nazioarteko txapelketa dugu.

Honetan, taldeko lau gazte, Iñigo Ibarburu, Haitz Mitxelena, Itsaso Tolosa eta Mikel Esnal nazioarteko igerilarien aurka lehiatu ziren txapelketa honetako finaletan.

Nahiz eta podiumean lekurik ez lortu, ederki moldatau ziren erronka honetan.

Hernaniko Saria

Abenduaren 17an, larunbatean, berriz, Hernaniko saria izan zuten taldeko gazteek eta guztira 7 domina eta 10 marka pertsonal lortu zituzten.

Dominei dagokionez, Naroa Goikoetxeak urrea lortu zuen 100 m. bular proban; Iñigo Ibarburuk ere urrea eskuratu zuen 50 m. libreetan eta zilarra 100 m. estiloak proban; Haitz Mitxelenak

zilarra eskuratu zuen 100 m. tximeletan; Mikel Esnalek zilarra 100 m. libreetan eta brontzea 100 m. estilo proban eta azkenik, Itsaso Tolosak brontzea lortu zuen 100 m. bizkar proban.

Bestalde, Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu digunez, "Hernaniko Saria 4x50 libre erreleboan jokatzen zen eta gure igerilariak bikain ibili ziren".

Izan ere, mutilen erreleboan bigarren postua eta txapeldu-nordetza lortu zuten, Bardulia taldearen ondoren.

Neskak ere "bikain ibili ziren" eta hirugarren postuan sailkatu ziren laugarrenari ia 10 segundoko aldea ateraez. "Tamalez posta batean aldeaz aurretik ateratzeagatik deskalifikatuak izan ginen eta sari horrek alde egin zigun," adierazi du Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak.

San Esteban saria

Hau guztiaz gain, taldeko txikiak San Esteban saria izan



Buruntzaldea IKT-ko gaztekoek lan ona egin zuten San Esteban sarian eta garaikur ugari lortu zituzten. BURUNTZALDEA IKT

zuten Oiartzunen, egun horretan bertan.

"Haur guztiek gogotsu eta bikain egin zuten igeri eta oso pozik atera ziren irabazitako garaikur guztiek," jakinarazi digu Apeztegiak.

Gauzak honela, 2002 eta 2003 urteetan jaiotako gaztekoek harrobia badagoela erakutsi zuten. 50 m. bizkar proban, Xabier Hernandez eta Leire Martin hirugarren izan ziren; 50 m. libre proban, aldiz, Nora Qian Villamediana izan zen azkarrena bigarren

postua lortuz eta Maider Lizaso hirugarren izan zen; 2002. urtean jaiotako artean, Lander Sorozabal izan zen azkarrena 50 m. libre proban eta nesketan, Irati Arzallus bigarren izan zen, "oso gutxiengatik ez zen txapeldun izan".

2001 urtean jaiotako artean, Nora Irazustak 100 m. tximeleta proban bigarren postua lortu zuen; 100 m. bular proban, Nahia Jie Villamediana nagusitasun osoz irabazle izan zen "marka bikaina egina" eta Ibon Etxarrik bigarren

postua eskuratu zuen. 100 m. bular proban, Leire Carcedo txapeldun izan zen eta Erika Rodriguez hirugarren eta 100 m. libre proban Jon Sotok bigarren amaitu zuen.

Honetaz gain, Janire Bera-sarte, 200 urtekoen mailan, 100 m. tximeleta proban irabazle izan zen eta 1999. urtekoen artean, Iñaki Etxebeste txapeldunorde izan zen.

Gainera, taldea hirugarren izan zen sailkapan orokorrean eta horregatik kopa jaso zuten gaztekoek. •

Maialen Chourraut, berriro, 2011ko kirolari onenen artean

Gipuzkoako kirol prentsa-ren elkarteak antolatuta, abenduaren 27an Amara Plaza Hotelean egindako sari-ketan protagonista izan zen Maialen Chourraut herriko palista.

Donostian eginiko batzar-rrak Gipuzkoak 2011 urtean izan duen kirolaririk onena hautatzea zuen helburu, komunikabide ezberdinetako kazetarien bozkekina.

Chourraut-ez gain, beste bost kirolari ziren saria jasotzeko hautagaiak Julen Aginagalde (Eskubaloia), Juan Jose Aranburu (Plater tiroketa), Jon Santacana (Neguko kirolak), lortiz Mendizabal (Jockey-a) eta Ekaitz Saies (hau ere piraguita).

Donostiako Udala saria

Azkenean Juan Jose Aramburuk, Skeet-eko munduko txapeldunak eraman zuen saria.

Hala ere, ez zen esku-

hutsik itzuli Maialen Chourraut herrita, Donostiako Udalen saria eman baitzioten urte osoan zehar egindako lanarengatik.

Londres buruan

Chourrauten hurrengo erronka, uztailean Londresen izango diren Olinpiar Jokoetara ahalik eta prestatuena iristea izango da.

Baina horretarako, aurrez, apirilean Seu d'Urgellen egingo den Espainiako piraguisimo selekzioaren hautaketa proban Londresera joateko plaza eskuratu beharko du.

Hala ere, zaila izango da herriko palista Joko Olinpiko-etatik kanpo ikustea. Berak lortu baitzuen Espainiako selekzioarentzat ur bizietako K-1 proban Olinpiar Jokoetan egoteko txartela, Bratislavan burutu zuen Europako Txapelketan brontzezko domina eskuratu ostean. •

Begiristain anaiak garaile Gipuzkoako larruzko paleta txapelketan

Gipuzkoako 2. mailako larruzko paleta txapelketan garaile izan ziren Jon eta Mikel Begiristain herritarrek, abenduaren 30ean Oiartzunen jokaturako finalean.

Azarotik hasita, ligaxka moduko txapelketan lehiatu ziren, finalurrekoa Zubietan jokatu zuten Zumaiaren aurka eta 35-32 gailendu zen herriko bikotea. Horrela, urte amaieran Oiartzunen jokatu zen final handirako txartela erdietsi zuten.

Finala Gaztelekuren aurka

Finalean, berriz, Andoaineko Gazteleku pilotela elkarteko bikoteari irabazi zion 35-22 emaitzarekin.

Anaietan gazteena den Mikel atzelariak adierazi digunez, partida "nahiko erraz" irabazi zuten, baina zintzo onartu du Gaztelekuko aurrelariak ezin izan zuela finala jokatu, profesionaletan



Begiristain anaiak 2. mailako txapela buruan dutela. GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOA

debuta egin zuelako egun hartan bertan.

Lehenengo mailan

Lortutako balentriak, hurrengo urtean 2. mailatik lehenengora jauzi egiteko aukera

emango dio Jon eta Mikel Begiristainek osatutako bikoteari, baina aurretik atsedean hartuko dute guztiz indarberri eta hurrengo urteko Gipuzkoako txapelketari gogotsu ekiteko. •

Egunero

Erakusketa

NAROA ARABIOTORRE artistaren MARGOEN ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **urtarrila osoan zehar.**



Larunbata, 14

Kontzertua

ZERO SETTEREN 25. URTEURRENA ospatzeko emanaldi berezia. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:30ean. Sarrera doan.**

Igandea, 15

Zinea

HAURRENTZAKO ZINEA atalaren barruan, "LA GRAN AVENTURA DE WINTER EL DELFIN". MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan, GAZTELANIAZ. Sarrera 3,40 euro.**

Zinea

"MEDIANOCHE EN PARIS" filma ikusgai, HELDUENTZAKO ZINEA atal berrian. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:30ean, GAZTELANIAZ. Sarrera 5,50 euro.**



Woody Allen-en unibertsoak

OKENDO ZINEMA TALDEAREN eskutik, Woody Allen zuzendariaren "MEDIANOCHE EN PARIS" filma ikusi ahaliko da. Iparameriketako idazle bohemioa, bere emaztegia eta honen gurasoak Parisera doaz. Hiriko kaleetatik zehar doan bitartean, 20. hamarkadan dagoela amesten du eta gauerdian, beste unibertso batera iristen da.

OSTEGUNA 12
21:30EAN

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
SARRERA, 4,40 EURO. GAZTELANIAZ

Igandea, 22

Zinea

"KIKI SUPERBRUJA 2" filma HAURRENTZAKO ZINEAREN barruan. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan, GAZTELANIAZ. Sarrera 3,40 euro.**

Osteguna, 26

Zinea

OSTEGUN ZINEAREN baitan emango da CIRKUS COLUMBIA filma. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **21:30ean. GAZTELANIAZ. Sarrera 4,40 euro.**

Ostirala, 27

Kontzertua

Añorgako BI "N" BI taldea gaztearen rock doinuak entzungo dira. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **23:00etan**

Kontzertua

HIRA eta Usurbilgo MENDEKU ITXUA taldeen emanaldia entzuteko aukera izango da. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan**

Larunbata, 28

Antzerkia

HAURRENTZAKO ANTZERKIA den OGRO TXIKIA lana ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **18:00etan, EUSKARAZ. Sarrera on-line hartuta 3 euro-tako prezioa izango du, egunean bertan 3,40 euro.**

Igandea, 29

Zinea

"WINX CLUB, LA AVENTURA MÁGICA" marrazki bizi-dunetako filma HAURRENTZAKO ZINEA atallean. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan, GAZTELANIAZ. Sarrera 3,40 euro.**

Zinea

HELDUENTZAKO ZINEA atalaren baitan emango da CIRKUS COLUMBIA filma. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:30ean. GAZTELANIAZ. Sarrera 5,50 euro.**

Oharrak

2012ko Inauteriak

2012ko inauteriak direla eta, Udalak gonbita luzatzen diren herriko talde zein herritarrei urtarrilaren 12an arratsaldeko 18:00etan Kultur Etxeko Hitzaldi Aretoan egingo den bilerara. Bileraren helburua, 2012ko inauterietako programa osatzea izango litzateke.

Galdutako gauzak

Santo Tomas egunean herritar batek blusa eta txapela aurkitu zituen Okendo plazan. Tamaina handikoak. Jabeak dei dezala 606 391 998 zenbakira.

Bestalde, Ttakun kultur elkarteko kideek Santo Tomas azokaren ostan zapi bat eta Olentzeroren ongi-etorri jaialdian amantala bat aurkitu zituzten. Jabeek aisia@ttakun.com helbidean edota 943 371 448 telefono zenbakian eska ditzakete galdutako gauzak.

Gasolina merkeago

Aterpea-ko txartelarekin

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordainketa egiteko garaian, %2ko beherapena izango dute.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia



Manuel Lekuona kulturtekoa

Manuel Lekuona kulturtekoa • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Astelehenerdik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

Eskutitza

Historio penagarri baten ipuin tristea

Behin batean bazen ameslari talde bat, Gipuzkoako Zero Zabor izeneko fardela traine-ru batean sartu eta ozeanoa zeharkatu nahi zuena ur bestaldean zaborrik gabeko uestzko paradisura heltzeko. Mundu honetan paradisu-rik ez zegoela eta egin nahi zutena ezinezkoa zela mila aldiz entzun arren, ameslari hauek trainerua kontrolpean hartu bezain pronto, amets zuten bidaia prestatzen hasi ziren.

Honelako erronkaren mentalizazio sendoa funtsezkoa izaten da eta lan hori eginga zeukat dagoeneko, urteak baitzaramatzaten jo ta

ke gezur beldurgarri bat plazaratzen: "ozeanoko alde honetan ezin izango da bizi, gure seme alaben etorkizuna bermatzeko, ur bestaldera traineru hau eramatea beharrezkoa da".

Eta horrela, GZZ izeneko fardela traineruan kargatu ostean, estropalariak abian jarri ziren... denbora gutxira, ordea: itsaso zabalean sartu bezain laster, itsas kolpe batek jota, ontzia hondoratzen zorian egon zen. Erronkaren tamaina ikusita, kezka nagusitu zen estropalarien artean.

Nahiz eta batzuk jarraitu nahi, gehienek buelta ematea beharrezkotzat jo zuten. Baina hainbeste urtetan

bidaia prestatzen ibilita nola esan erkideei buelta eman behar zutela? Zer egin eta nora jo ez zekitela patrioiak alarma botoia sakatu behar izan zuten, laguntzaren eske.

EAJ izeneko ontzi bat bertaratuta eta kapitainak estropalariari bere ontzia eskaini zien kaira bueltatzeko. Urtean prestatutako bidaia besteen ontziaren gainean bukatzearen ideia ordea, ez zen estropalarien gustukoa. Orduan, Kapitainak azken aukera luzatu zien: "Traine-rua badiaraino atoiaren eraman eta hara iristean aske utziko zaituztegu, zuek trainerua kaira eraman dezazue. Dakizuen ez gero, badiatik irtetzeko Foru

Alundiari eskatu eta hango biltzarraren onarpena lortu beharko duzue. Horretarako sei hilabeteko epea daukazu".

Horrela egin zen. Kaiaren jende askok, berrogei bat alkate tarte, adorea eman ez estropalariak hartu omen zituzten baina, ordurako, gehienek ezinezko amets baten atzetik ibiliak zirela baneratu zuten. Egunak joan ahala, Gipuzkoako Zero Zabor izeneko fardela kaiko bazter batean utzi, egitas-moa ahaztu egin zen. Sei hilabeteko epea atzean utzi orduko, ameslariak etxera joan ziren.

Lasarte-Oriako EAJ-PNV

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Lasarte-Oriako Zero Sette akordeoi orkestrak bere lehengo entseguia egin zuenetik 25 urte igaro dira. Ehun akordeoi jole baino gehiago izan dira taldean urte hauetan, egun 19 kide dira. ZERO SETTE AKORDEOI ORKESTRA

Zero Setteren XXV. urteurrena

■ Nazioarte mailako sari ugari eskuratu ditu 25 urtean Lasarte-Oriako orkestrak ■ Bi zuzendari izan ditu, hasieran Mercero eta egun Goikouria ■ Urteurren kontzertua hilaren 14an izango da

Bihar, urtarrilaren 10ean, 25 urte beteko ditu Zero Sette akordeoi orkestrak. 1987an sortu zuen Jose Antonio Mercero herriko kultur talde hau eta 1990an Elias Goikouria hasi zen zuzendari lanetan. Geroztik, milaka kontzertu eskaini ditu taldeak eta hainbat sari eskuratu ditu. Urteurren hau ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte, baina ospakizun nagusia larunbatean, urtarrilaren 14an, herriko beste taldeekin batera Manuel Lekuona kultur etxean eskainiko duten kontzertua da.

Nerea EIZAGIRRE

1 1987ko urtarrilaren 10ean lagun talde gogotsu batek Zero Sette akordeoi Orkestra musika taldea sortzea erabaki zuenetik...“ Honela dio Javier Zatarainek Zero Sette akordeoi Orkestrak bere XX. urteurrenean idatzi zuen liburuaren hitzaurreak.

Izan ere, egun horretan herriko akordeoi orkestrak Jose Antonio Mercero zenaren zuzendaritzapean bere lehengo entseguia egin zuen.

Hala baina, taldearen aurkezpen ofiziala ez zen urte horretan izan. 1989ko azaroran Tedoso zineman, egun Manuel Lekuona kultur-etxea dagoen lekuan, eskaini zuen orkestrak bere lehengo kontzertua.

Zuzendari berria

Eta hortik denbora gutxira, zuzendari aldaketa izan zen orkestran. Mercero herriko gazte bati, Elias Goikouriari utzi zion lekua.

1990ko maiatzaren 14ean, Billabonako Zineman, bere

ren elizan, antolatu zuen Zaharren omenaldian zuzendu zuen lehenengoz.

Lanaren fruituak

Aldaketaren ostean, gainera, Zero Sette orkestra lehiaketetan parte hartzen hasi zen. Lehengo Reina Sofia saria izan zen eta herriko taldeak garaikur nagusia eskuratu zuen.

Hala baina, ugari izan dira taldeak bere lanaren ordaintan lortu dituen sari eta aipamenak, esate baterako, Ourenseko Lehiaketako lehen saria, Torrelavegako lehiaketako lehen saria hainbat urtetan, Cedeirako lehiaketako lehen

saria eta Frantziako Andrezieuxeko Sari Nagusian zilarrezko domina, baita Ginebrako Nazioarteko Sari nagusian ere.

Nazioarteko taldea

Honela, Zero Sette orkestrak gure herriaren izena nazioarteko hainbat txokoetara eraman du.

Polonia, Frantzia, Italia, Suitza edo Alemania dira orkestrak bisitatu dituen herrietako batzuk. Baina estatuan ere, Katalunia, Valladolid, A Coruña, Asturias, Leon edo Caceres-en Zero Sette akordeoi orkestrak arrakasta handia izan du.

Momentu bereziak

Lasarte-Orian bertan j eta inguruan ere hamaika emanaldi eskaini ditu eta hauetako batzuk bereziak izan dira gainera.

Esate baterako, 1993an, Zero Sette Orkestrak Manuel Lekuona kultur-etxe inaurgurazioan parte hartu zuen.

Era berean, 1997an, Donostiako Artzañ Onaren katedralaren ehungarren urteurrenean parte hartu zuen eta hain juxtu, Katedralen jotzen zuen lehenengo akordeoi orkestra izan zen honela.

2002an, bere lehengo diskoa grabatu zuen.

Eta 2007an, bere XX. urteurrena ospatu zuen. Besteak beste, “Zero Sette akordeoi orkestra XX. urteurrena” liburuak aurkeztu zuen, bere bigarren diskoa grabatu zuen eta Kursaal aretoan jo zuen lehenengo aldiz Donostiako Orfeoiak antolatzen duen Unicef jaialdiaren barruan.

Akordeoi jaialdia

Baina dudarik gabe, orkestraren lorpen handietako bat Lasarte-Oriako akordeoi jaialdia sortzea izan da.

Izan ere, urtez urte errotzen doan ekitaldia honetara nazioarteko eta estatuko akordeoi jole eta talde ezagunak baita, gure herriaren izena akordeoiaren munduan zabalduz.

Aurten bere IX. edizioa ospatuko du eta sortu duen orkestraren antzera XXV. edizioa iristea espero dugu. Zorionak Zero Sette!!•

Jaialdi handia larunbatean

Zero Sette akordeoi Orkestrak bere XXV. urteurrena ospatzeko emanaldi berezi eta handia antolatu du larunbaterako. Urtarrilaren 14an, Manuel Lekuona Kultur-etxean arratsaldeko 19:30etik aurrera burutuko den ikuskizunean herriko hainbat talderen babesa izango du herriko akordeoi orkestrak.

Elkarlana

Izan ere, Zero Sette orkestrak Lasarte-Oriako beste taldeekin batera lan egin du urte hauetan. Esaterako, Alboka abesbatzarekin eta Erketz EDT-rekin batera Eus-

kararen Maratoiari amaiera eman zion Eusko Irudiak ikuskizuna prestatu zuen.

Gainera, Erketz eta Amaia Caballero dantza eskolako zenbait kidek parte hartu dute Zero Settek Euskal Herriko kanpo eskainitako haibat emanalditan...

Ezin huts egin

Horregatik, hauek urteurren honetako ospakizunekin bat egin nahi izan dute.

Gauzak honela, Erketz dantza taldeak, Alboka Abesbatza, Semblante Andaluz elkarteko Zambra taldeak, Amaia Gonzalez dantza eskolako kideek,

Lasarte-Oriako danborradak eta Udal Musika eskolako Andrea Gonzalez eta Naroa Goikoetxea trikitilariak, parte hartuko dute.

Hauen laguntzaz, Zero Sette orkestrak bere errepertorioko hainbat doinu ezagun eskainiko ditu. Baina urteurren honetarako prestatutako lan berriak ere aurkeztuko ditu Elias Goikouriak zuzentzen duen taldeak.

Gonbidapenak

Jaialdi hau ikusi nahi duten herritarrek gonbidapenak eskuragarri dituzte gaurtik aurrera, Manuel Lekuona kultur-etxe harreran. •